



ERREKALDE AUZUAREN HASIERAK

Gizaldi askuan geldi antzian egon ondoren, 1950eko hamarkadatik aurrera ekin otzan zabalketari Oñatiko kale-aldiak. Urte gutxiren buruan etxe-poligono barrirak modutu ziran herri-gune historikuaren inguruetan: **Lezesarri** lehenengo, **Kurtze baltz/Matinguan** hurrengo, **Olakuan** handik puntuko eta **Akelena** aldian azkenik.

Mendiko kale eta San Marinaren akaberan Larraña auzua hasten zan berihala. Muga horretan azkenengotako etxe bat Akelena kale-baserrixa zan, orain **Moiua** esaten xakon kalian, baiña fan zan mendian **Artzain kale** moduan ezauketan zan lekuan. Handik gora **Gorritxitxi** izeneko parajia eguen, eta beheko partian —**Antzuelas** edo **Arranoaitz** errekiari jarraituaz— Errekalde baserrirako bidia.

Poligonuari be **Errekalde** izena ifini xakon azkenian eta, berau egittek, errekiari tapau edo, hobeto esanda, arkiu egin bihar izan zan. Hartarako obrak 1964-1965 aldera hasi ziran eta orduko fotografixia izango da gaurko hau. Mendiko kalia-ren amaieratik atarata dago: ezkerraldeko hormak Abaunz-Biaindarrak lehentuago egin euen etxerako sarrerakuak dira: eskuman ikusten dan etxe-zatixa oraindiok tente dago eta, bere ateburuan irakurten dan lez, 1953an jaso zan; goixenian, barriz, Larraña auzoko Irazabal bixak eta Urubil baserrixa agerketan xaku.

J. E.

Argazkixa Plazaolak ataratakua da Udalarentzako eta Jabier Arriaranek itxi dosku.



OÑATI

Hormigoiak, S.A.

Zubillaga auzoa, z/g (Olano) Tfnoa: 78 29 12
OÑATI

